

Xedapen Orokorrak

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA OSASUN SAILA

5974

395/2005 DEKRETUA, azaroaren 22koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Entete Publikoaren A-1 lanbide-taldeko profesional sanitarioen (medikuak eta goi-mailako teknikariak) garapen profesionala arautzen duena.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak mediku eta goi-mailako teknikarien lanbide-talderako ezarri nahi duen garapen profesionalako sistema abiaraztea Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 25., 26., 27. eta 28. artikuluen (langileen araubideari buruzko III. kapitulua osatzen dutenak) eta Osasun Lanbideak antolatzeari buruzko azaroaren 21eko 44/2003 Legearen 37., 38. eta 39. artikuluen (Garapen Profesionalari eta bere aintzatespenari buruzkoak) esparruan kokatzen da, Osasun Zerbitzuen estatutueta langileen Esparru estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legeari loturik. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Sailaren politikari jarraitzen dio, «banakako lorpenak egiazta eta aintzatesten dituzten garapen profesionalen mekanismoak heldu, eta partaidetza, autonomia eta erantzukizunaren arteko konbinaziorik onena aurkitzeko» asmoz.

Giza baliabideen garapenak garrantzi estrategikoa du Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzurako, bere funtsezko printzipioetan eta 2003–2007ko Plan Estrategikoaren oinarritzko ildoetan agertu dena.

Horrela, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak bere printzipioen artean sartzen du pertsonen konpromisoa eta garapen profesionala -eta bereziki profesional sanitarioenak- oinarritzkoak direla erkidegoko herritarrei kalitatezko zerbitzuak ematera bideratzen den eginkizuna bete ahal izateko.

Bere ustez, osasun arloan gertatzen diren aurrerapen teknologiko eta zientifikoetara egokitu eta etengabe eguneratzeak eta osasun jardueraren eremu guztietan kudeaketa eraginkorra egon beharrak, profesionalen partaidetza motibatua, erronka teknologiko berrien aurrerako etengabeko garapena, eta aldi eta beharizan berrietara egokitu eta eguneratzeko ahalegina eskatzen dituzte.

Profesional sanitarioen ekarpen hori planifikatu, kudeatu eta ebaluatu behar da, profesional bakoitzak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren helburuei egiten dien ekarpen berezia beren-beregi aintzatesi ahal izateko.

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DEPARTAMENTO DE SANIDAD

5974

DECRETO 395/2005, de 22 de noviembre, por el que se regula el desarrollo profesional de los profesionales sanitarios del grupo profesional A.1. Facultativo médico y técnico del Ente Público de Derecho Privado Osakidetza-Servicio vasco de salud.

La puesta en marcha del sistema de desarrollo profesional para el grupo profesional facultativo médico y técnico que Osakidetza-Servicio vasco de salud se propone implantar, se enmarca dentro de la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación sanitaria de Euskadi, artículos 25, 26, 27 y 28 que componen al capítulo III de régimen de personal, y de la Ley 44/2003, de 21 de noviembre, de Ordenación de las profesiones sanitarias, a través de los artículos 37, 38 y 39 relacionados con el Desarrollo Profesional y su reconocimiento, en coherencia con la Ley 55/2003, de 16 de diciembre, del Estatuto marco del personal estatutario de los Servicios de Salud y responde a la política del Departamento de Sanidad de la Comunidad Autónoma Vasca en su propósito de «abordar mecanismos de desarrollo profesional que acrediten y reconozcan los logros individuales y encontrar la mejor combinación entre participación, autonomía y corresponsabilidad».

El desarrollo de los recursos humanos tiene para Osakidetza-Servicio vasco de salud una importancia estratégica que ha quedado patente en sus principios fundamentales y en las líneas básicas de su Plan Estratégico 2003–2007.

Osakidetza-Servicio vasco de salud asume así, dentro de sus principios, que la implicación y el desarrollo profesional de las personas, y de manera específica de los y las profesionales sanitarios es fundamental para el cumplimiento de su misión orientada a proporcionar servicios de calidad a los ciudadanos de la comunidad.

Entiende que la adaptación y actualización permanente a los avances tecnológicos y científicos que se producen en el ámbito de la salud y la necesidad de una gestión eficaz en todos los ámbitos de la actividad sanitaria requieren de la participación motivada de los profesionales, de su desarrollo constante ante los nuevos retos tecnológicos y de un esfuerzo de adaptación y de actualización a los nuevos tiempos y necesidades.

Esta aportación de los y las profesionales sanitarios demanda ser planificada, gestionada y evaluada con objeto de posibilitar el reconocimiento expreso de la contribución diferencial de cada uno de ellos a los objetivos de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Garapen profesionaleko sistemak osasun zerbitzuen kudeaketa hobetzeko eta profesionalak motibatuzko tresna eraginkorra izan nahi du, profesionalak lanbidearen eremu ezberdinetan modu planifikatuan aurrera egitea ahalbidetzeko moduan.

Garapeneko sistema hori profesionalen eskubidetzat jotzen da, eta ondokoak ahalbidetzen dizkie beren lanbide-bizitzaren barnean:

a) Beren borondatez garapeneko sistema batean sartzeko aukera izatea, sistema horrek profesional bakoitzaren haren ezagutza, gaitasun eta portaeren arabera da-gokion lanbide-mailan kokatuko duela.

b) Profesionala mailaka garatzea, gaitasun pertsonal, eskakizun eta antolamenduak eta lanbideak ezartzen dituzten aukeren arabera.

c) Ebaluazioa eta aintzatespena bideratzea, profesionalaren ekarpen bereziaren arabera.

Horren bidez, hurrengo ezaugarriak biltzen dituen garapen eredua ezarri nahi da: dinamikotasuna, eraginkortasuna, osasun lanbidean sortzen diren aldaketetara egokitzeko gaitasuna, sistemaren beraren etengabeko hobekuntza eta lortutako mailen finkapena.

Halaber, uste da aukera bat dela antolamendu sanitarioarako, profesionalen kudeaketa-sistema izatea ahalbidetuko du eta; sistema horrek beharrezko gaitasunak eta portaerak emango dizkie profesionali eta antolamenduari, antolamendua eraginkorra izateko eta erabil-tzaileentzako arretaren kalitatea etengabe hobetzeko.

Horri jarraiki, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak eta Osasun sailburuak proposatuta, derrigorrezko txostenak aztertuta, Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoa entzunda, eta Gobernu Batzordeak 2005eko azaroaren 22ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honakoa

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Helburua.

Dekretu honen helburua bere aplikazio-eremuan dauden langileen garapen profesionala arautzea da, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zerbitzu erakundeetan lan egiten duten bitartean.

2. artikulua.— Aplikazio-eremua.

Arau honek arautzen duen garapen profesionaleko eredua lizentziatuen mailako taldeko profesional sanitarioei aplikatuko zaie, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren mendeko zerbitzu erakundeetan A-1 lanbide-taldeko (medikuak eta goi-mailako teknikariak) lanpostu funtzioaletan lan egiten duten langile finkoen zerrenda adierazita.

El sistema de desarrollo profesional quiere ser un instrumento eficaz para la mejora de la gestión de los servicios sanitarios y para la motivación de los y las profesionales, de modo que favorezca un progreso planificado de los mismos en los distintos ámbitos que comporta la profesión.

Este sistema de desarrollo se considera como un derecho de los y las profesionales que les posibilita dentro de su vida profesional a:

a) Poder acceder, de manera voluntaria, a un sistema de desarrollo que les sitúe profesionalmente en el nivel que, por sus conocimientos, habilidades y comportamientos, les corresponde.

b) Posibilitar un desarrollo progresivo del profesional de acuerdo con las capacidades personales y las exigencias y también posibilidades que la organización y la profesión establecen.

c) Posibilitar la evaluación y el reconocimiento en función de su aportación diferenciada.

Se apuesta con ello por establecer un modelo de desarrollo que tenga como características más significativas la dinamicidad, la eficacia, la capacidad para adaptarse a los cambios que se generen en la profesión sanitaria, la mejora permanente del propio sistema y la consolidación de los niveles alcanzados.

Se considera así mismo una oportunidad para la organización sanitaria que va a permitir disponer de un sistema de gestión de los y las profesionales orientado a dotar a estos y a la organización de las competencias y de los comportamientos que ésta requiere para ser eficaz y eficiente y para mejorar de manera continuada la calidad de atención a sus usuarios y usuarias.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Hacienda y Administración Pública y del Consejero de Sanidad, vistos los informes preceptivos, oída la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 22 de noviembre de 2005,

DISPONGO:

Artículo 1.— Objeto.

El presente Decreto tiene por objeto regular el desarrollo profesional del personal incluido en su ámbito de aplicación durante su ejercicio profesional en las organizaciones de servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Artículo 2.— Ámbito de aplicación.

El modelo de desarrollo profesional que regula la presente norma será de aplicación a los profesionales sanitarios del grupo de nivel licenciado con relación de empleo de carácter fijo que preste servicios en puestos funcionales del grupo profesional A1 facultativo médico y técnico en las organizaciones de servicios dependientes de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Garapen profesionaleko sistemak ez dauka zerikusirik kudeaketa lanpostuekin, eskuratutako garapen-maila ebaluatu eta aintzatesteko ondoretarako biak bateagarriak direla, dekretu honetan ezarritako zehazpenen eta gainerako arau aplikagarrien arabera.

Lan finkorik ez duten langileak beren garapen profesionalaren ebaluazioan aurkeztu ahal izango dira, betiere beren lanbide-kategorian emandako zerbitzuen betekizuna betetzen badute. Aintzatestetako mailak ondorio ekonomikoak ekarriko ditu, profesionalak kategoriaren jabetzako izendapena lortzen duen unetik aurrera. Maila hori behin betiko izendapena eskuratzeko hautaketa-prozesuetan baloratu ahal izango da, deialdi bakoitzak zehazten duen bezala.

3. artikulua.– Garapen profesionaleko sistemaren helburuak.

Honakoak dira garapen profesionaleko sistemaren helburuak:

a) Profesionalak sartzea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren helburuen eta pertsonen iguripenen arteko bateratasun-maila handia lortzeko, beren hazkunde profesionalak osasun arreta hobetzen laguntzeko moduan.

b) Hazkunde profesionaleranzko etengabeko eta banakako jarrera sustatzea, profesionali epe ertain edo luzera begira erantzukizun zailagoak eta zorrotzagoak eskainiz.

c) Profesional bakoitzak hurrengo eremuak bezalakoetan egindako ekarpen berezia aintzatestea:

- 1.– Gaixoaren arreta hobetzea.
- 2.– Norberaren gaitasunak eta lanbide-eremua hobetzea.
- 3.– Zerbitzuaren eraginkortasuna eta kalitatea hobetzea.
- 4.– Ikerketa, irakaskuntza eta ezagutzen hedapenaren arloetan Antolamenduari egindako ekarpenak.

d) Aipatutako ekarpen berezia bere garapenaren arabera ordaintzea.

e) Pertsonen kudeaketa osoaren barnean tresna garantzitsua izatea, profesionalak beren garapenean bertan eta Antolamenduaren etorkizuneko beharrianen arabera bideratzea ahalbidetzen duena.

4. artikulua.– Egitura.

Garapen profesionaleko sistema ondoko bost mailatan egituratzen da. Maila horiek garapenaren profil bereizi eta mailakakoei dagozkie, baita funtzionamendu eduki eta eskakizun ezberdinei ere:

El sistema de desarrollo profesional es independiente de la carrera de gestión, siendo ambas compatibles a efectos de evaluación y reconocimiento de nivel de desarrollo adquirido, conforme a las determinaciones previstas en el presente Decreto, y demás normas de aplicación.

El personal sin relación de empleo de carácter fijo podrá presentarse a la evaluación de su desarrollo profesional, siempre que cumpla el requisito de servicios prestados en su categoría profesional. El nivel reconocido tendrá efectos económicos a partir del momento en que el profesional obtenga nombramiento en propiedad en la categoría. Dicho nivel podrá ser valorado en los procesos selectivos para la obtención de nombramiento fijo, en los términos que cada convocatoria determine.

Artículo 3.– Objetivos del sistema de desarrollo profesional.

Los objetivos que persigue el sistema de desarrollo profesional son:

a) Implicar a los y las profesionales en el logro de un alto grado de convergencia entre los objetivos de Osakidetza-Servicio vasco de salud y las expectativas de las personas, de forma que su crecimiento profesional contribuya a mejorar la atención sanitaria.

b) Promover una actitud individual permanente hacia el crecimiento profesional, ofreciendo a los y las profesionales responsabilidades más complejas y exigentes con una perspectiva a medio-largo plazo.

c) Reconocer la aportación diferencial de cada profesional en ámbitos como:

- 1.– La mejora de la atención del paciente.
- 2.– La mejora de sus propias competencias y dominio profesional.
- 3.– La mejora en eficacia, eficiencia y calidad de servicio.
- 4.– Las aportaciones a la Organización en términos de investigación, de docencia y de transmisión del conocimiento.

d) Remunerar dicha aportación diferenciada en función de su desarrollo.

e) Disponer de una herramienta importante dentro de la gestión integrada de las personas, que permita orientar y orientarse a los y las profesionales en su propio desarrollo y en función de las necesidades de futuro de la Organización.

Artículo 4.– Estructura.

El sistema de desarrollo profesional se estructura en los siguientes cinco niveles, que corresponden a perfiles diferenciados y progresivos de desarrollo así como a contenidos y exigencias de funcionamiento distintos:

Maila	Nomenklatura	Lanean emandako urteak
Sarbidea	Espezialista	5 urtetik behera
I	Espezialista adjuntua	5 urte edo gehiago
II	Espezialista seniorra	11 urte edo gehiago (+6)
III	Ahokularia	18 urte edo gehiago (+7)
IV	Ahokulari seniorra	25 urte edo gehiago (+7)

Dekretu honen ondoretarako, lanean emandako denboratzat joko dira Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren barnean zerbitzu aktiboan edo lanpostua gordetzen duen lanpostu baliokidean, garapen profesionalaren maila aintzatestea aukera ematen duen lanbide-kategoriako lanpostu funtzioetan edo antolamendu eta eginkizunen aldetik Osasun Sistema Nazionalen sartuta dauden osasun erakundeetako kategoria edo lanpostu baliokidean, benetan lan egindako denboraldiak, baita Ikerketako Zentro Ofizialetan edo Osasun Sistema Nazionalari atxikitako erakundeetan ikerlari lan egindako denboraldiak ere.

Era berean, ebaluazioa eskatzeko unean bere kategoriakoa ez den beste lanpostu funtzional batean lan egiten emandako denboraldiak ere zenbatuko dira -osasun-zientzien espezialistaren titulu ofiziala lortzeko emandako prestakuntza-urteak kenduta-, betiere lanpostua burutzeko osasun arloko lizentziatuen mailako titulazioa eskatu bada.

Maila goragoko batean sartzeko, aurreko mailan emandako denboraren barruan eskuratu diren merituko baino ez dira kontuan hartuko.

5. artikulua.— Sartu eta kokatzeko betekizunak.

Honakoak izango dira garapen profesionaleko sisteman sartu ahal izateko betekizunak: alde batetik, Dekretu honen 2. artikuluan ezarritakoak, eta bestaldekik, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren barnean zerbitzu aktiboan edo lanpostu baliokidean egotea, deialdian ezarritako epean bidezko eskabidea egitea, eta 4. artikuluan maila bakoitzera sartzeko ezartzen diren lanean emandako urteak betetzea.

Sisteman sartu ondoren, mailaren sustapena hurbilen dagoen maila goragokora baino ezin izango da egin, arau honen xedapen iragankorretan ezarritako ezarpenaldian izan ezik.

Garapen profesionaleko sisteman sartzen direnek beren unitate edo zerbitzuko profesionalen balorazioan lagundu beharko dute, edo hala denean, beste zerbitzu erakunde bateko espezialitate bereko profesionalen balorazioan, hori egiteko eskatzen zaienean.

6. artikulua.— Profesionalen tipologiak, ebaluatze-ko ondoretarako.

Nivel	Nomenklatura	Años de Servicios Prestados
Acceso	Espezialista	Menos de 5 años
I	Espezialista Adjunto	5 años o más
II	Espezialista Senior	11 años o más (+6)
III	Consultor	18 años o más (+7)
IV	Consultor Senior	25 años o más (+7)

Se consideran servicios prestados, a los efectos de este Decreto, los períodos de tiempo de servicios efectivos en Osakidetza-Servicio vasco de salud, en situación de servicio activo o asimilado con reserva de plaza, en el desempeño de puestos funcionales de la categoría profesional desde la que se opta al reconocimiento del nivel de desarrollo profesional o en categoría o puesto equivalente en las organizaciones sanitarias integradas organizativa y funcionalmente en el Sistema Nacional de Salud, así como los servicios prestados como personal investigador en Centros Oficiales de Investigación u Organizaciones adscritas al Sistema Nacional de Salud.

Igualmente, se computarán los servicios prestados en diferente puesto funcional al de su categoría en el momento de solicitar la evaluación siempre que para su desempeño fuera exigible titulación sanitaria de nivel licenciado, a excepción de los años de formación para la obtención del título oficial de especialista en ciencias de la salud.

Para el acceso a un nivel superior, sólo se considerarán los méritos adquiridos en el periodo de permanencia en el nivel anterior.

Artículo 5.— Requisitos de acceso y encuadramiento.

Serán requisitos para la incorporación al sistema de desarrollo profesional, además de los previstos en el artículo 2 del presente Decreto, encontrarse en servicio activo o asimilado en Osakidetza-Servicio vasco de salud, formular la correspondiente solicitud en el plazo establecido en la convocatoria y haber completado los años de servicios prestados que se establecen en el artículo 4 para el acceso a cada nivel.

Una vez producida la incorporación al sistema, la promoción de nivel sólo podrá llevarse a cabo hacia el inmediatamente superior, excepto durante el período de implantación previsto en las disposiciones transitorias de la presente norma.

Quienes accedan al sistema de desarrollo profesional vendrán obligados a colaborar en las evaluaciones del personal profesional o de su unidad o servicio, o, en su caso, de la misma especialidad en otra organización de servicios cuando sean requeridos para ello.

Artículo 6.— Tipologías de profesionales a efectos de evaluación.

Faktore bakoitza baloratzeko, kontuan hartuko da profesionalaren tipologia, hurrengo sailkapenaren arabera:

- a) Lehen mailako arreta.
- b) Arreta espezializatu medikoa.
- c) Arreta espezializatu kirurgikoa.
- d) Zerbitzu nagusi klinikoak: laborategia, erradiodiagnostikoa, farmazia, anatomia patologikoa, medikuntza nuklearra eta erradiofisika.
- e) Bestelako zerbitzuak: prebentzio eta lan osasunaren zerbitzuak, KSU, ikerketa unitateak, irakaskuntza unitateak, prebentzio-medikuntzaren zerbitzua eta aurreko ataletan aipatu ez diren gainerako zerbitzu edo unitate guztiak.

7. artikulua.— Ebaluatzeko faktoreak.

Garapen profesionalaren ondoretarako, hurrengo faktoreen balorazioak profil profesionala zehaztuko du:

a) Jarduera asistentziala: erakundearen helburuak eta funtsezko emaitzak betetzen laguntzera bideratzen diren ekintzak dira.

b) Lanbide-eremua: profesionalak eskuratu eta bere jarduera asistentzialari gehitu dion oinarrizko kalifikazioa osatzen duten ezagutza, gaitasun, bizipen eta jarrerak barne hartzen ditu. Bere baliabide profesionala osatzen du, eta bere lanbidea burutzeko modua zehazten du.

c) Etengabeko prestakuntza: profesionalak etengabe eguneratu eta ezagutza eta teknika berriak bereganatzeko duen jarrera islatzen du. Halaber, bere lanbide-eremuari lotutako teknologietan berritza bideratzen diren ekintzak barne hartzen ditu.

d) Irakaskuntza eta ezagutzen hedapena: ezagutza, gaitasun eta bizipen tekniko-asistentzialak eta kudeaketarenak modu antolatuan hedatzen laguntzen duten jarduerak barne hartzen ditu.

e) Ikerketa: ikerketa-proiektuak planifikatu, zuzendu, kudeatu edo horietan parte hartzera bideratutako ekintza guztiak zein erakunderako lehentasunezko ildoan edo ildo interesgarrien barnean argitalpen, jakinarazpen, biltzarretako txosten, jardunaldien antolaketak eta abarren bidez hedatzeko jardueretan parte hartzea barne hartzen ditu.

f) Erakundearekiko konpromisoa: helburuetan eta arretaren garapen eta hobekuntzan parte hartzeak profesionalaren jarrerak eta portaerak hausnartzen ditu, erakundearen helburuak betetzen laguntzeari dagokionez.

8. artikulua.— Ebaluatzeko irizpideak.

Baloratzeko ondoretarako, sei faktoreak hurrengo hiru blokeak osatuta taldekatuko dira:

a) A blokea: Jarduera asistentziala eta Lanbide-eremua.

Para la valoración de cada uno de los factores se tendrá en cuenta la tipología del profesional, según la siguiente clasificación:

- a) Atención primaria.
- b) Atención especializada médica.
- c) Atención especializada quirúrgica.
- d) Servicios centrales clínicos: laboratorio, radiodiagnóstico, farmacia, anatomía patológica, medicina nuclear y radiofísica.
- e) Otros servicios: servicios de prevención y salud laboral, UGS, unidades de investigación, unidades docentes, servicio de medicina preventiva y todos aquellos servicios o unidades que no se hayan incluido en los apartados anteriores.

Artículo 7.— Factores de evaluación.

El perfil profesional a los efectos del desarrollo profesional quedará determinado por la valoración de los siguientes factores:

a) Actividad asistencial: conjunto de acciones orientadas a la contribución del mismo en el cumplimiento de los objetivos y resultados clave de la organización.

b) Dominio profesional: responde al conjunto de conocimientos, habilidades, experiencias y actitudes que constituyen la cualificación básica adquirida por el o la profesional y que ha incorporado a su actividad asistencial. Constituye su bagaje profesional y determina el modo de realizar su trabajo profesional.

c) Formación continuada: representa la actitud del profesional hacia la actualización permanente y hacia la asunción de nuevos conocimientos y técnicas. Asimismo contempla las acciones orientadas a la renovación e innovación en las tecnologías asociadas a su ámbito profesional.

d) Docencia y difusión del conocimiento: contempla el conjunto de actividades que contribuyen a la transmisión de manera formalizada de los conocimientos, habilidades y experiencias técnico-asistenciales y de gestión.

e) Investigación: contempla todas las acciones conducentes a planificar, dirigir, gestionar o participar en proyectos de investigación así como la participación en las actividades de divulgación a través de publicaciones, comunicaciones, ponencias en congresos, organización de jornadas, etc. en las líneas prioritarias o de interés para la organización.

f) Implicación y compromiso con la organización: la participación en los objetivos y en el desarrollo y mejora de la atención contempla actitudes y comportamientos del profesional con relación a su colaboración en el cumplimiento de los objetivos de su organización.

Artículo 8.— Criterios de evaluación.

A efectos de valoración los seis factores quedarán agrupados formando los tres siguientes bloques:

a) Bloque A: actividad asistencial y Dominio profesional.

- b) B blokea: Etengabeko prestakuntza, Irakaskuntza eta ezagutzen hedapena, eta Ikerketa.
c) C blokea: Erakundearekiko konpromisoa.

Ebaluazioa gainditu eta maila zehatz batean sartzeko, profesionalak gutxieneko puntuazioa lortu behar du bloke bakoitzean, hurrengo taulan islatzen den bezala:

Faktorea	Blokea	I. maila	II. maila	III. maila	IV. maila
Jarduera asistentziala Lanbide-eremua	A	70	100	123	145
Etengabeko prestakuntza Irakaskuntza eta ezagutzen hedapena Ikerketa	B	20	35	46	57
Erakundearekiko konpromisoa GUZTIRA	C 105	15 160	25 199	30 237	35

Factor	Bloque	Nivel I	Nivel II	Nivel III	Nivel IV
Actividad Asistencial Dominio Profesional	A	70	100	123	145
Formación continuada Docencia y difusión del conocimiento Investigación	B	20	35	46	57
Implicación y compromiso con la Organización TOTAL	C 105	15 160	25 199	30 237	35

Nolanahi ere, lor daitekeen puntuazioa lanaldi arrunt eraginkorrari buruzkoa dela ulertuko da, aurreko mailan egon den bitartean eskuratu diren merituek baino ez direla kontuan hartuko.

9. artikulua.– Zerbitzu erakundeak Ebaluazio-batzordea.

Ebaluazio-batzorde espezifiko batek, zerbitzu erakunde bakoitzean sortutakoak, ebaluazioa burutuko du. Batzorde horretako kideek ebaluatu beharreko profesionalaren maila akademiko bereko edo altuagoko titulazioa izan behar du, eta nolanahi ere, Batzordeko kideak diren profesionalak ebaluazioa jasoko duen pertsonaren osasun lanbideko titulazioaren maila berekoa izan behar du.

Zerbitzu erakundeak Zuzendaritza-gerentziako titullarrak Ebaluazio-batzordea hautatuko du, eta horretako burua izango da. Ondoko kideek osatuko dute batzorde hori:

- Zuzendari medikoa.
- Pertsonal-zuzendaria.
- Kontseilu Teknikoko profesional ordezkaria.
- Pertsonaleko profesional ordezkaria.
- Ebaluazioa jasoko duen pertsonaren lanbide-tipologiako profesionala, 6. artikuluaaren banaketaren ar-

b) Bloque B: formación continuada, Docencia y difusión del conocimiento, e Investigación.

c) Bloque C: implicación y compromiso con la organización.

Para superar la evaluación y ascender a un determinado nivel el o la profesional deberá superar una puntuación mínima en cada uno de los bloques conforme se representa en la siguiente tabla:

En todo caso la puntuación alcanzable se entenderá referida a la jornada efectiva laboral ordinaria y sólo se considerarán los méritos adquiridos en el periodo de permanencia en el nivel anterior.

Artículo 9.– Comité de evaluación de organización de servicios.

La evaluación se llevará a cabo por un comité de evaluación específico, creado en cada organización de servicios, cuyos miembros deberán estar en posesión de titulación de igual o de superior nivel académico que el profesional a evaluar y, en todo caso, el personal profesional integrante del Comité deberá estar en posesión de titulación de profesión sanitaria del mismo nivel que la del evaluado.

El comité de evaluación será designado por el/la titular de la Dirección-Gerencia de la organización de servicios, quien asumirá la presidencia del mismo, y estará constituido además por los siguientes miembros:

- Director Médico.
- Director de Personal.
- Un profesional representante del Consejo Técnico.
- Un profesional representante del Personal.
- Un profesional de la tipología profesional del evaluado, conforme a la distribución del artículo 6, a pro-

bera, eta zerbitzu erakundeko profesionalek proposatuta. Prozedura horren bidez profesionala hautatzen ez bada, zerbitzu erakundeko Zuzendaritzak hautatuko du.

f) Ebaluazioa jasoko duen pertsonaren espezialitateko kanpoko profesionala, eskualdeari (III. maila ebaluatzeke) edo estatuari (IV. maila ebaluatzeke) dagokion Elkarte Zientifikoak hautatutakoa.

g) Giza baliabideetako teknikaria, Batzordeko idazkaria izango dena eta bileretan hitza eta botoa izango dituen.

Hala ere, batzordearen osaera zerbitzu erakunde bakoitzean dauden egitura eta baliabideetara egokitu ahal izango da, nolatan ere batzordeko profesionalen ordezkariak bermatuko dela artikulu honetan ezarritako proportzioan.

Zerbitzu erakundeko Zuzendaritza-gerentziak batzorde hori hautatuko du ebaluazioak hasi aurretik, haren osaera iragarki-oholetan eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Intraneten argitaratuko dela.

Batzordeak bere kideei laguntzen dieten aholkulari bereziak egotea xedatu ahal izango du. Aholkulari horiek batzordeko kideei eskatutako titulazio berdina izan beharko dute, eta beren espezialitate teknikoei lotutako aldeak ebaluatzen lagundu baino ez dute egingo. Era berean, beren jardura urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 22. artikulutik 27. artikulura zehaztutako arauari lotu beharko zaie.

10. artikulua.— Garapen profesionaleko sistemaren Jarraipen-batzordea.

Aholku batzorde bat eratuko da, garapen profesionaleko sistemaren ezarpena sustatu eta laguntzeko helburua izango duena eta ondoko eginkizunak burutuko dituen:

a) Prozesuaren ildo nagusiak zehaztu, eta bere homogeneotasuna zaindu.

b) Ereduaren diseinua zehaztu, eta baremoak eguneratu.

c) Prozesua zehaztu, eta deialdi bakoitza abiarazi eta planifikatu.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko titularra batzordeko burua izango da, eta beste sei kide gehiagok osatuko dute, sei ordezkari egongo direla; kide horietako bat Batzordeko idazkaria izango da. Kideak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenaren bidez hautatu eta kargutik kenduko dira, ebazpen horiek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko direla.

Batzordeak bere kideei laguntzen dieten aholkulari bereziak egotea xedatu ahal izango du. Era berean, beren jardura urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu-

